

A.2 ikastaroa

Komunikazio soziala, generoa eta balio-aldaketa

Gidaria: **Izaskun Landaia Larizgoitia**
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Gasteiz.

Tokia: **Miramar jauregia. Donostia.**

Helburuak: **Testuingurua:** Gizonak eta emakumeak komunikabideetan duten ordezkari-tza publikoa desberdindua eta asimetrikoa da oraindik ere, eta ez soilik gizonak baino emakume gutxiago agertzen direlako, baita gizartean dauden genero-ikusmoldeen eraginpean daudelako ere.

Izaera desberdineko bi faktorek eragiten dituzte, gutxienez, gizonak eta emakumeak komunikabideetan duten presentzia agertzen diren desoreka horiek. Batak izaera kulturala du: emakumeak egiten dituzten jardueri garrantzi txikiagoa ematen zaie, eta ez dira horrenbeste erakusten. Bestea faktore sozialekin eta botere-faktoreekin lotuta dago: komunikabideak, neurri handi batean, alderdian, erakunde-jardueran, lanbide-ordezkari-tzan edo sozietate-lidergoan gertatzen dena jasotzen dute.

Komunikabideak nabarmentzeko ahalmena eta kanpoan uzteko ahalmena dute, eta, horrela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak adierazten eta sendotzen dituzte. Baina, bestalde, badute beste balio batzuk eta berdintasuneko gizarte-eredu bat sustatzeko ahalmena: kohesio handiagoa izango duen eta pertsona guztien bizitzarako bidezkoagoa izango den gizarte bat sustatzeko, alegia.

Helburuak:

- Emakumeak komunikabideetan duten presentzia eta komunikazio-formatuetan duten ordezkari-tza aztertzea.
- Mass-median eta publizitatean genero-identitateak eraikitze eta zabaltzeko moduak zein diren argitzea.
- Emakumeen kontrako indarkeriari ematen zaion informazio- eta publizitate-tratamendua aztertzea.
- Agerian uztea genero-ikuspegia duten komunikabideak protagonismo handia dutela balio sozialak berdintasunerantz aldatzea susta dezaketen eragile gisa.
- "Ikus-entzule kritikoak" sensibilizatzeko eta prestatzeko estrategiak eta tresnak proposatzea.
- Berdintasunaren aldeko komunikazioaren esparruko zenbait esperientzia alternatibo ezagutzera ematea: aktibismoa eta ahalduntze digitala.

Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan

Matrikula-prezioa: maiatzaren 31ra arte: 60 €. Ekainaren 1etik aurrera: 68 €.

Balio akademikoa: 20 ordu

Hizkuntza ofiziala: gaztelania

PROGRAMA

EKAINAK 18

- 09:00 Dokumentazioa banatzea
- 09:15 Inaugurazioa
Maite Zelaia Garagarza
Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza. Donostia. UPV/EHU.
Izaskun Landaida Larizgoitia
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Gasteiz.
- 09:30 "Komunikabideetan eta publizitatean genero-identitateen komunikazioa eta eraikuntza: esparru teorikoa, lege-esparrua"
Pilar López Díez
Salamanca Unibertsitatea.
- 10:45 Atsedena
- 11:00 "Emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion informazio- eta publizitate-tratamendua aztertzea"
María Pilar Rodríguez Pérez
Deustuko Unibertsitatea.
- 12:15 Atsedena
- 12:30 "Genero-ikuspegia darabilten komunikabideen protagonismoa, gizon eta emakumeen berdintasuneranzko balio-aldaketaren sustatzaile gisa"
Elvira Altés Rufias
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- 13:45 Laburpen-saioa / Bibliografia-saioa

EKAINAK 19

- 09:15 “Berdintasunaren aldeko beste komunikazio modu bat. Aktibismoa eta ahalduntze digitala”
June Fernández Casete
Pikara Magazinea.
- 10:30 Atsedena
- 10:45 Mahai-ingurua: “Genero-ikuspegitik, publizitatearen eta komunikazioaren erronkak EAEn”
Moderatzailea: Ana Alberdi Zubia
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Gasteiz.
Lucía Martínez Odrizola
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.
Pablo Vidal Vanaclocha
Publizista. Komunika - Komunikazio kulturala eta soziala. Gasteiz.
Itziar Abad Ramírez
Berdintasunerako agentea eta generoan eta garapenerako lankidetzan espezializatutako kazetaria.
- 13:30 Saioa ixtea eta ikastaroaren amaiera

INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES - ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEA

Secretaría de los Cursos - Ikastaroen Idazkaritza

Apartado 1042 Postakutxa – 20080 Donostia / San Sebastián – Tel. 943219511 • 699492271 –
Fax 943219598 – cverano@ehu.es – <http://www.ehu.es/cursosverano>